




Galdera

1. Nire fede-bizitza egiazko eta edertasunezko esperientzia al da?
Nire fede-bizitza nire askapen sakonaren iturria al da?
2. Fedeak nire burua besteengana ematera bultzatzen al nau?



Bukaerako otoitza

Hartzazu, Jauna, eta onartu
nire askatasun osoa,
nire oroimena,
nire adimena
eta nire borondate osoa.
Dudan guztia eta daukadan guztia
Zuk emanak dira,
zuri, Jauna, itzultzen dizkizut;
dena Zurea da,
egin, erabat, nahi duzuna.
Emadazu zeure maitasuna
eta grazia,
hori nahikoa baitut.
Amen.

GURE AITA





Hasierako otoitza

Jaunaren hitza entzun ta gurea egiteko prestatuko gara isiltasun une bat eginez eta Espiritu Santuari dei eginez.

Espiritu Santua, zatoz!
Ireki gure bihotza
Jaunak Idatzietan eskaintzen digun Hitza
entzun dezagun.

Espiritu Santua, zatoz!
Emaguzu ulermena eta iraunkortasuna
Hitza ulertzeko
eta praktikara eramateko.



Sarrera

Jesusek Jainkoaren Erregealdia iragarritz munduan zehar joateko agindu ematen digu. Hori da Jesusen misioa, Elizari emana eta Jaunaren Herria garen guztiak bataioaren bitartez jaso duguna.

Gaur egun ere, errealitatearekiko begiradak Eliza bezala kokatzen gaitu, gure mugekin baina Jaunak gure garaikideei Berri Ona iragartzera bidali gaituela nabarmenduz. Gure hurkoek, betikoak bezala, beren bizitzak Jainkoaren itxaropenarekin eta maitasunarekin zentzuz betetzeko beharra dute.



1 Co. 9, 16.19-23

Egiaz, berri ona hots egiten dudala-eta ezin naiz harrotu; ezinbesteko eginbehartzat jotzen baitut hori, eta errukarria ni, berri ona hots egingo ez banu!


Guztiz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik jende gehien Kristorentzat irabazteko. Juduekin judu egin naiz, juduak irabazteko; Moisesen legepean bizi direnekin legepeko egin naiz, nahiz eta neu lege horren menpeko ez izan, legepean bizi direnak irabazteko. Moisesen legea ezagutzen ez dutenekin, legea kontuan hartu gabe bizi izan naiz, legea ezagutzen ez dutenak irabazteko; ez, noski, Jainkoaren legerik onartzen ez dudalako, nire legea Kristo baita. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta guztia berri onagatik egiten dut, berri on horretan neuk ere parte izan dezadan.



Evangelii Gaudium

9. Beti dago ongia jakinarazteko joera. Egiaren eta edertasunaren benetako bizipenak, berez bilatzen du bere zabalkuntza, eta sakoneko askatasuna bizi duen edonori pizten zaio sentipen handiagoa besteen beharren aurrean. Jakinaraziz, ongia errotu eta hedatu egiten da. Horregatik, duintasunez eta betetasunez bizi nahi duenak ez du bestea onartu eta haren ona bilatzea beste biderik. Ez genuke harritu behar, beraz, San Pauloren zenbait esaldirekin: «Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu» (2Ko 5,14); «Errukarria ni, berri ona hots egingo ez banu!» (1Ko 9,16).

10. Goragoko mailan bizitzea da kontua, baina ez sakontasun gutxiagorekin: «Bizia, emanez areagotzen da, eta isolamenduz eta erosokeriaz ahultzen. Izan ere, bizitzaz gehien gozatzen dutenak, ertzeko ziurtasuna utzi eta gai-nontzekoei bizitza komunikatzeko eginkizunarekin zaletuak dira». Elizak ebanjelizatze eginkizunera deitzen dituenean, ez die kristauei beraien heldutasun pertsonalerako egiazko bidea agertu besterik egiten: «Hemen aurkitzen dugu errealitatearen beste lege nagusi bat: besteei bizitza emateko eskaini ahala eskuratzen eta heltzen dela norbere bizitza. Hori da, azken batean, egitekoa».



Gogoeta

Munduarekin Jainkoarengandik hainbeste maitasun jaso izanagatik konprometitu diren gizon eta emakumeen ordua da.

Euren bizimoduarekin Ebanjelioaren nobedadea eta poza aurkitzen dituztenengana eramaten duten gizon eta emakumeen ordua da.

Munduan murgildurik, honek non barre eta, batez ere, non negar egiten duen entzunez, ase dituen Jaunaren Maitasunaren izpi bat eramateko bizi diren gizon eta emakumeen ordua da.

Epairik eta gaitzespenik gabe, eskua luzatuz eta, besterik gabe, laguntzera eskainiz Jaunaren Berri Ona iragartzera joateko oihartzuna argi eta garbi entzun dutelako, bestearen bila irteten diren gizon-emakumeen ordua da.